

KANALAK

Atal hau kanalak zehazteko erabiliko dugu. Ondoren azalduko ditugun kanalak salmenta kanala, banaketa kanala, komunikazio kanala eta publizitate kanala izango dira.

Salmenta kanalari dagokionez, produktua gure webgunean egongo da. Bestalde, IKEArekin funtsezko elkarte bat osatzen dugunez, beraien webgunean ere eskuragarri egongo da. Desberdintasuna, IKEAn dutxa bat erosi beharko dela da produktua erosi ahal izateko, "pack" moduan salduko baita. Aldiz, gure webgunean erosiz gero, modu indibidualean eskuratuko da.



Gure produktua bezeroengana iritsi ahal izateko, banaketa prozesu bat egin behar da. Produktua banatzeko erabiliko dugun enpresaren izena WECARGO da. Enpresa honen erabileraren arrazoia, IKEA banaketak egiteko erabiltzen duen enpresa dela da.



Produktua gure webgune bidez erosiz gero, Espainian bakarrik egingo da banaketa. IKEAn erosten bada berriz, IKEA eskuragarri dagoen herrialdeetan egingo da soilik. Modu batera edo bestera, WECARGO arduratuko da banaketa egiteaz.

Ezinbestekoa da bezeroekin komunikazio kanal bat edukitzea. Bezeroek arazoren bat edukiz gero, inkesta bat bete beharko dute. Beraien arazoen arabera, webgunean bideo zehatz batzuk gomendatuko dira. Arazoari erreparatuz, bideoak ez badira erabilgarriak, bezeroak inkesta bat bete beharko du, gurekin harremanetan jarri ahal izateko telefonoz edo posta elektronikoko bidez. Gainera, bertan gure zerbitzua baloratzeko atal bat egongo da, gure bezeroen beharra asetu dugula ziurtatzeko.

Enpresa batek funtziona dezan, funtsezkoa da publizitatea egitea. Publizitateari esker, gure produktua leku eta pertsona gehiagori iristea lortzen dugu. Horrela, gure produktuaren salmenta handiagoa izango da eta enpresa aurrera ateratzeko balioko digu. Gure kasuan, publizitatea sare sozialen bidez egingo dugu. Beste enpresa batzuek, beraien produktua iragartzeko, beste modu batzuk erabiltzen dituzte. Hala ere, ez da gure kasua. Gaur egun, sare sozialek duten ikusgarritasuna oso nabarmena da, beste publizitate moduena baino gehiago. Horregatik, sare sozialen bidezko publizitatea merkeena eta eraginkorrena iruditzen zaigu.